

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko azaroaren 27tik abenduaren 1erako astea

➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: PMI MANUFATURA-INDIZEA



Datuaren analisia

2000ko apirileko datua alde batera utzita, Euroguneko manufakturen sektoreak inoizko hazkunderik handiena izan zuen, ekoizpenaren hazkunde azkarrari eta eskaera berriei esker. Euroguneko Manufaktura-sektoreko azken PMI indizea 60,1 puntutaraino igo zen azaroan, urriko 58,5 puntuen aldean.

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura-indizeak hilero erosteten profesionalei eta enpresetako exekutiboiei euroguneko manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: BPGd

	Est. PIB 2º Trim	Diferencia	1ª Revisión
Total	3,00%	0,30%	3,30%
Consumo privado	1,62%	-0,02%	1,60%
Consumo público	-0,02%	0,09%	0,07%
Inversión	0,25%	0,14%	0,39%
* No residencial	0,49%	0,10%	0,59%
* Residencial	-0,24%	0,04%	-0,20%
Inventarios	0,73%	0,07%	0,80%
Sector Exterior	0,41%	0,02%	0,43%

Datuaren analisia


Estatu Batuetako Barne Produktu Gordina espero zena baino gehiago handitu zen hirugarren hiruhilekoan (% 3,3 urtekotua), inbentarioan eta hornikuntzan egindako inbertsioen hazkundeari esker, aldi berean kontsumitzailearen gastuaren moteltzea orekatzeko balio izan duena. Bada, % 3ko hasierako aurreikuspena gorantz berrikusi zen, eta ekonomialarien aurreikuspenak (% 3,2) gaitu zituen. Hazkunderik handiena 2014ko hirugarren hiruhilekotik.

Adierazlearen azalpena

Barne produktu gordina (BPGd) Analisi Ekonomikoen Bulegoak kaleratzen duen datua da. Herralde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Estatu Batuek ekoizten dituzten azken zerbitzu edo ondasunen batuketaren eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: KPI



Datuaren analisia

Japoniako KPIa urte arteko % 0,2 igo zen urrian. Datua analisten aurreikuspenekin bat etorri zen. Adierazlea, oso hegakorrek diren elikagaien prezioak barne hartzen ez dituen, ehuneko 0,8 igo zen irillarekin alderatuta.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Bere balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: CAIXIN PMI MANUFATURA-INDIZEA



Datuaren analisisia

Caixinek prestatzen duen PMIa aurreko hileko 51tik 50,8ra jaitsi zen azaroan, lehengaien kostuaren eta kutsaduraren kontra gobernuak harturiko neurri zorrotzen ondorioz.

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura-indizeak hileroko erorketen profesionalen eta enpresetako exekutiboekin manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus
12/04	Japonia	Kontsumitzailearen konfiantza-indizea	44.9
12/04	Espainia	Hileko langabezia-tasa	--
12/04	Erresuma Batua	Markit/CIPS RU eraikuntza PMI	--
12/04	Eurogunea	Sentix inbertsiogilearen konfiantza	33.6
12/04	Eurogunea	Hileko ekoizpenaren prezioen indizea	% 0,3
12/04	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	--
12/05	Japonia	PMI Nikkey composite Japonia	--
12/05	Txina	Txinako Composite PMI Caixin	--
12/05	Espainia	Hileko industria-ekoizpena	% 0,4
12/05	Espainia	Markit PMI Composite Espainia	--
12/05	Italia	Markit/ADACI Italia Composite PMI	--
12/05	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	60.1
12/05	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	57.6
12/05	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	57.5
12/05	Erresuma Batua	Markit/CIPS RU Composite PMI	--
12/05	Eurogunea	Hileko xehekako salmentak	-% 0,7
12/05	Eurogunea	Hiruhileko BPGd SA	% 0,6
12/05	Estatu Batuak	Balantza komertziala	-45.4b \$
12/05	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
12/05	Estatu Batuak	Composite ISM ez manufaktura-sektorea	59.0
12/06	Alemania	MoM fabriken aginduak	-% 0,1
12/06	Alemania	Markit PMI Alemaniako xehekako merkataritza	--
12/06	Eurogunea	Markit Eurogunea xehekako merkataritza PMI	--
12/06	Frantzia	Markit PMI Frantziako xehekako merkataritza	--
12/06	Italia	Markit PMI Italiako xehekako merkataritza	--
12/06	Estatu Batuak	ADP Enplegu aldaketa	190k
12/07	Alemania	Hileko SA industria-ekoizpena	% 1,0
12/07	Frantzia	Balantza komertziala	-4600m
12/07	Italia	Hiruhileko langabezia-tasa	% 11,2
12/07	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
12/08	Japonia	BoP oinarrizko merkataritza balantza	418.1b ¥
12/08	Japonia	Hiruhileko BPGd SA	% 0,4
12/08	Alemania	Balantza komertziala	21.0b
12/08	Frantzia	Hileko industria-ekoizpena	-% 0.2
12/08	Erresuma Batua	Hileko industria-ekoizpena	-% 0,1
12/08	Erresuma Batua	Balantza komertziala	-3000 £
12/08	Erresuma Batua	NIESR BPGd-aren kalkulua	--
12/08	Estatu Batuak	Langabezia-tasa	% 4,1
12/08	Estatu Batuak	MoM handizkako inbentarioak	--
12/08	Estatu Batuak	Hileko handizkako merkataritza-salmentak	% 0,3
12/08	Estatu Batuak	Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea	98.9
12/08	Txina	Balantza komertziala	34.70b \$

BURTSAK:

Itxiera mistoak nazioarteko merkatu nagusietan, erreferentzia makroz eta politika-gaiei buruzko albistez beteriko aste batean. Alemanian, kontserbadore eta sozialdemokratek gobernu akordio berri bat lortzeko elkarrizketak abiarazi zituzten berriro. Erresuma Batuan, bestetik, Brexitaren fakturari buruz Mayk egin zituen adierazpenen arabera, Europar Batasunaren eskakizunak betetzetik oso gertu egongo litzateke, etorkizuneko merkataritza-itunari buruzko negoziazioei bidea emanez. AEBetan, errepublikanoek zerga-erreforma onartu zuten senatuan, nahiz eta behin betiko bozketa larunbatean egin zen. Marjina txikiarekin onartu zen erreforma. Gainera, Fed-eko presidente izango den Powell jaunak adierazi zuen bankuen erregulazioa arintzearen alde dagoela. Bada, adierazpen horrek eragin positiboa izan zuen sektorean. Esparru geopolitikoan, AEBk Ipar Korearen aurkako mehatxuen maila puztu zuen, misil berri bat jaurti ostean, eta aukera guztiak mahai gainean daudela adierazi zuen, nahiz eta bide diplomatikoaren alde egiten jarraitzen duen. ELGEk, bestetik, bere ekonomia-aurreikuspen globalak jakinarazi zituen, munduko ekonomiaren balioespena hobetzeaz gain, hazkunde arazoei buruz ohartarazi zutenak.

ERRENTA FINKOIA:

Europako bonuen errentagarritasunek behera egin zuten. Euroguneko inflazioaren datua espero zena baino txikiagoa izan zen, eta beheranzko mugimenduak eragin zituzten Europako tasetan. Hamar urterako bonu alemaniarren errentagarritasuna 6 op jaitsi zen eta espainiarrarena 7 op. Arrisku-prima, beraz, 111 puntuetaraino murriztu zen. AEBetan salmentak eman ziren, ekonomia amerikarraren bilakaera positiboaren eta Fed-en adierazpen gogorragoen eraginez. Hamar urterako tasak 2 op egin zuen gora, % 2,36raino. Kredituaren diferentzialak, aldiz, estutu egin ziren.

DIBISAK/LEHENGAIK:

Dolarrak % 0,18ko balioa irabazi zuen euroaren aldean, datu makro onek lagunduta. EBtik ateratzeko negoziatioaren ondorioz gertatu zen Brusela eta Erresuma Batuen arteko hurbilketak liberaren balio handitzea ekarri zuen. Lehengai dagokienez, petrolioaren prezioak % 0,30 egin zuen gora, LPEEK, Errusiarekin batera, ekoizpen murrizketak 2018aren amaierara arte luzatzea erabaki zuen astean. Urrea, aldiz, % 0,64 jaitsi zen, 1.280,50 \$/ontza mailaraino.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa % Astean	Ald. 2017
MSCI WORLD (Local)	1.566,29	0,65	14,81
IBEX 35	10.085,00	0,31	7,84
DJ EURO STOXX 50	3.527,55	-1,50	7,20
DJ STOXX 50	3.138,54	-1,01	4,25
FTSE	7.300,49	-1,47	2,21
S&P 500	2.642,22	1,53	18,02
Dow Jones	24.231,59	2,86	22,61
NASDAQ	6.847,59	-0,60	27,20
NIKKEI 225	22.819,03	1,19	19,38
MSCI GORAKORRAK (Lo)	59.271,65	-3,24	24,39
MEXBOL	47.265,30	-1,41	3,55
BOVESPA	72.264,45	-2,55	19,99
SHANGHAI	3.474,43	-1,08	6,92
Errusia Rts Mosku	1.133,33	-2,81	-1,65

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald 2017
ALEMANIA 2 URTE	-0,71	-0,01	0,06
ESPAINIA 2 URTE	-0,34	0,00	-0,06
AEB 2 URTE	1,77	0,03	0,58
ALEMANIA 10 URTE	0,31	-0,06	0,10
ESPAINIA 10 URTE	1,42	-0,07	0,03
AEB 10 URTE	2,36	0,02	-0,08
ALEMANIA 30 URTE	1,12	-0,08	0,17
ESPAINIA 30 URTE	2,67	-0,07	0,05
AEB 30 URTE	2,76	0,00	-0,30
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/22	47,97	-1,14	-24,07
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/22	230,43	-6,15	-58,27

Dibisak	Maila	% Aldaketa % Astean	Ald. 2017
Dolarra / Euroa	1,19	-0,18	12,89
Yena / Euroa	133,36	0,21	8,39
Libera / Euroa	0,88	-1,51	3,14
Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2017
Petrolio (Brendt)	63,67	0,30	14,91
Urrea	1.280,50	-0,64	11,13

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.